

Asteazkena, 2013/03/06

Kronika.net

Argazkiak

Elkarriketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Berezia

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun
data

2013

martxoa

5

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



HERNANIKO TXOTX DENBORALDIA 2013

«Izpi txinparta berde bat lehertzean edalontzian,
urrezkoa dirudien zuku goxoa»

Kantuan hasi zuten Hernaniko aurtengo sagardo denboraldia, Gaztea Irratiko lau esatariek. Eskueta hartutako edalontzietan lehertu zituzten lehenengo zipriztinak. Jarraian, hernaniarren txanda izan zen.

2013/01/14 - Astelehena

Giro paregabea jarri zuten atzo, Dida! saioko esatariek: Jon Gotzon, Edurne Garmendia, Ainhoa Vitoria eta Joseina Etxeberriak. Sagardoa atera den bezalako bertsoak kantatu zituzten, goxo eta biziak, txotxa irekitzeko gonbitea eskertzeko. (bideoa: www.kronika.net). «Hemendik aurrera inork ez dezala gaizki hitz egin gure aurrean Hernaniko sagardo denboraldiaz, sagardoaz, ez eta jendeaz ere. Benetan bihotzean eramango zaituztegu-eta. Biba zuek! Eutsi Hernani!». ETBko Maikrux eta Marikarmen atsuk ere berehala azaldu ziren, barrabaskerietarako prest. «Hau da Hernaniko aurtengo denboraldiko lehenengo baso puskatua!» esanez, egin zuten tragoa, basoa lurrera bota baino lehen. Gero, Plaza bete zuten hernaniarren txanda izan zen.

Informazio gehiago: Txotx irekierako [bideoa](#).



Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali



[web mapa](#) | [kontaktua](#)

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005

